

# txintxarri



## Mundua aldatzeko ari dira

Martxoaren 8an eta ondorengo egunetan ekimen ugari aurrera eramaten ari dira Lasarte-Orian / 6-7

TXINTXARRI

## Herria, Korrikarako prestatzen

Euskararen aldeko egitasmo hori Irundik Baionara zeharkatzen ari da Euskal Herri osoa; hilaren 19an iritsiko da gurera / 2-5

**Aurtengo udako txokoei buruzko informazioa eta prezioak argitaratu ditu Ttakun KEK** / 8-9

**Oreki Fundazioak antolatuta, hitzaldi ziklo bat egiten hasi dira partaidetzaz eta beste gai batzuez** / 10

**Herritar batzuek osasun sistema publikoaren aldeko plataforma bat sortu berri dute** / 11

**Intzako Nagusien 2. Mailako bikoteak Udaberriko txapelketako finala jokatuko du** / 12

**Eguzki Goxokis Goxua taldeak hiru puntuak eskuratu ditu bigarren faseko lehen jardunaldian** / 13

**Hilaren 16 eta 17ko asteburuan nahiz hurrengoan kultur jarduera ugari egingo dituzte herrian** / 15

# 2MÓ 229€

erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak



## multiópticas

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20

## 23. Korrika gure herrira heldu arteko jardueren errepasoa

Aurkezpen gala, 'Ez da kasualitatea' bertso saioa eta hilaren 19ko ekimen bereziak izango dira hurrengoak

### Txintxarri

Muntteri AEK euskaltegiak zenbait jarduera antolatu ditu zenbait eragilerekin elkarlanean, 23. Korrika gure herrira iritsi aurreko egunak girotzeko.

### LARUNBATA 16

23. Korrika aurkezteko gala aurrera eramango dute, kultur etxean, 18:30etik aurrera. Herriko zenbait eragilek emanaldiak egingo dituzte eta ondoren aurtengo peto eta lekukoak banatuko ditu Muntteri AEK euskaltegiak. 17:45ean, Okendo plazan elkartuko dira Xumela koruko kideak eta zenbait abesti kantatu ostean, kalejiran abiatuko dira aretorantz. Ikuskizuna amaitzen denean, Ttirriki Ttarraka eskolako trikitilariak alaituko dituzte kaleak.

### IGANDEA 17

*Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua aurrera eramango dute, kultur etxean, 12:30ean. Ane Labaka, Oihana Iguaran, Onintza Enbeita eta Miren Amuriza ariko dira bertsoan, Maite Berriozabalek jarritako gaien bueltan. Gari Otamendi eta Ixak Arruti izango dira musikariak.

### ASTELEHENA 18

Herriko ikastetxeetako haurrek ondutako erakusketa ikusteko azken eguna izango da. Antonio Mercero aretora joan behar dute herritarrek, 17:00etatik 19:00etara.



Erakusketa, Merceron. TXINTXARRI

### ASTEARTEA 19

Korrika Eguna izango da, orduan iritsiko baitira lasterkariak herrira, 22:00etan, Urnietatik. Egun osoko egitaraua prestatu dute:

**11:00etan**, Korrika Txikia, erdigunean barrena. Okendo plazatik irten eta bertan helmugaratuko dira.

**17:00etatik aurrera**, Okendon, haurrentzako jokoak Ostadar SKTren eskutik. Bitartean, plaza alaituko du Porrotx pailazoak.

**17:30etik 19:30era**, Okendon, Zirku Tailerra.

**19:30ean**, Okendon, pintxo dastaketa, herriko elkarte gastronomikoen eskutik.

**19:30etik 21:00etara**, kaleak alaituko dituzte Oaintxe in de! txarangaketa herriko txistularien taldeak.

**22:00etan**, Urnietatik etorriko da 23. Korrika gure herrira.



Bea Egizabal clown-ikerlaria, bere azterlanari buruzko azalpenak ematen, Ttakunenean. TXINTXARRI

## Goretex materiala ez da proposa Korrikarako

'Harro herri' leloa duen lasterketa bat gure herrira iristeko bezperetan, euskalduntzeko bidez harro dauden herritar batzuek euren bizipenak kontatu dituzte Ttakunenea elkartearen. Aurretik, hizkuntzari eta hiztunei buruzko ikerketa baten berri eman du Bea Egizabalek

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Zumaburu, Zabaleta, Sasoeta edota beste edozein auzokoa izanda ere, ziur noizbait entzun duzula esaldi hau: *Lasarte, caso aparte*. Baieztapen hori indartzen duen beste adibide bat izan zen hilaren 13koa, izan ere, 23. Korrika oraindik gure herrira iritsi ez denean, jarri diegu dagoeneko erronka eder bat anto-

latzaileei, hemendik bi urte barruko lasterketarako. Beno, lehen pertsonako plurala bainoago, zehatzagoa da hirugarren pertsonako singularra erabili eta "jarri die" esatea, okurrentzia Bea Egizabal clown-ikerlariarena izan delako (kronika idatzi duen kazetariak ez baitu patente eta horrelako lege kontuekin arazorik nahi). Egin berri duen

ikerketaren ondorioak plazaratu zituen eta horietako bat da arazoak ditugula euskaraz haserre adierazteko eta hizkuntza horretan sexua izateko (beno, agian orokorragoa da arazo hori). Hortaz, 24. Korrika prestatzeko bileretan problematika horri heldzea iradoki zien Egizabalek saiora bertaratu ziren AEK-ko kideei.



## Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
607 62 52 33 - lasarte@aek.eus  
www.muntteri.blogspot.com.es

LASARTE-ORIA  
HARRO  
HERRI

**aek**  
euskara praktikoa



Bide hori egiten lagun dezake material didaktikoa sortzeak. "Udalak bidaltzen dizkigu ba hitz goxoen hiztegia eta Ene Kantak CDa, txikiei hitzegin eta abesteko... Oso ongi dago hori, baina koskortu egiten dira eta liskarrak sortu eta haserretzen garenerako ezingo lukete Ene Bronkak izeneko diskoa bidali?". Euskaldunona "komunitate jatorra" izanagatik, inoiz ez haserretzen saiatzeari baino etorkizun hobea ikusten dio Egizabalek amorrua hizkuntza horretan adierazten ikasteari, "Nik bat eta paretak beste bat emango din!" bezalako esamoldeak grabatuta dituen lan bat entzunda. Gauza bera egin dezakete sexuari buruzko hiztegiarekin, izena aldatuta: Ai Ene. Hori bai, herritar batzuen ahotsak udalerrri berekoek entzun eta ikasi ordez, aproposagoa iruditzen zaio lurraldeka grabatzea. Laburbilduta, hortxe ideia: Ene Kantak, Ene Bronkak eta Ai Ene, bakoitza bizitzaren etapa eta alor jakin bati zuzenduta. Gaur-gaurkoz dena segidan eta erdiko martxarrik gabe idazten bada ere, Ttakun-Enea bera izan daiteke grabaketa lanerako toki aproposa...

Ikerketaren beste atal batean euskaldun motak sailkatu ditu Egizabalek: euskaldun zaharrak, gazteak edo zaharrak izan daitezkeenak; euskaldun berriak, benetan berriak direnak ala garai batean euskara ikasitakoak, hau da, berri-zaharrak; euskalki batean, baturan edota sukalkian mintzatzen direnak; elebidun

mota desberdinak ('euskara eta gaztelania hitz egiten dituen euskalduna, erdalduna da?' galdera bota zuen ikerlariak); gaztelaradunak; eta "fenomeno oso kurioso bat", *gaztelaradun Goretex-a*. Azken horiek iragazkortasun handia dute euskararekiko, hogeitaz hitz berberak errepikatuta ere ez dituelako ulertu eta barneratu nahi. "Horren arrazoa, agian, euskarak dituen txistukari guztiez babesteko da", bota zuen Egizabalek, ironiaz.

Bakarrizketa saioa amaituta, zentimetro batzuetara zituen zazpi hizlariak bere tokia hartzera gonbidatu zituen, eta lasaitasunez hitz egitera animatu. Ordu erdi inguruz barre gogotik egin da, Ttakuneneara sartu zireneko tentsioak askatuta zituzten solasaldia hasterako, saio hasieratik amaierara arte erakutsi zutenaz.

23. Korrikari buruzko argazki, bideo, artikulua, agendako hitzordu eta bestelako edukiak kanal berezi batean biltzen ari gara, TXINTXARRI aldizkariaren atari digitalean. Azpiko QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatuz gero sartuko zara bertara. Gogoratu hilaren 19an iritsiko dela Lasarte-Oriara.



## Goretex-ik jantzi ez duten zazpi herritar

Egizabalek bere azterketa lana plazaratu ostean mahaiaren bueltan eseri ziren zazpi herritarrek zein euskaldun mota ote diren, ba bakoitzak jakingo du, baina argi dago hizkuntza horretaz babesteko Goretex materialik erabili ez dutela, bakoitzak bere momentuan euskaraz bizitzeko hautua egin duelako. Egindako bideari eta beste kontu batzuei buruz jardun ziren Mertxe Rodriguez, Iker Arzadun, Alvaro Gil, Amaia Ramirez, Pili Bermejo, Eli Garzon eta Diego Elbira.

Artikuluak, osorik, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) webgunean irakur ditzakezue, 23. Korrikaren kanalean.



MERTXE RODRIGUEZ

Mertxe Rodriguez izan da mikrofonoa hartzen lehena, bere euskalduntzeko prozesua azaltzeko. "Euskaraz bizi nahi nuela erabaki nuen, hori sartu zitzaidan buruan, eta lortu dut. Hein handi batean, nire inguruak lagundu dit horretan, euskara maite duten euskaldun askorekin topo egin dut". "Pribilegiatua" sentitzen da.



IKER ARZADUN

"Txikitatik" izan du gaitasuna Iker Arzadunek euskara ulertzeko, baina "oso zaila" egiten zitzaion esaldi bat osatzea. Bikotekidea hasi zitzaion xaxatzen euskara ikasteko eta lauzpabost urtez aritu zen euskaltegian. "Beste bizimodu bat" esamoldea erabili du hizkuntza horrek berarentzat esan nahi duena azaltzeko.



ALVARO GIL

"Harro" dago Alvaro Gil, etxean nahiz lanean euskaraz bizi delako. AEKn ikasten hasi zen duela hogeitaz urte eta hasiera "gogorra" izan zela gogoratu du, baina merezi izan duela egindako bideak. "Lasaitasuna" hitza aukeratu du euskarak berarentzat esan nahi duena berba bakarrean laburbiltzeko.



AMAIA RAMIREZ

Euskara ikastea erabaki zuenean "erromesaldi" moduko bati ekin zion herritarrek: "asko" aspertzen zen gramatika, deklinabideak eta horrelakoak ikasten zituenean, Muntteri AEK euskaltegira iritsi zen arte. "Euskaraz lagunak egitea, maitatzea... zer zen ikusi nuen. Azken hori da gauzarik politena".



PILI BERMEJO

"Komunitate bateko kide sentitzeko aukera" eman dio euskarak herritarri. Extremadurako arbasoak dituen eta urte askotan B ere duen ikasi duen lasarteoriatar batek Ttakun euskara elkartearen lan egiten du gaur egun. Amak esandakoa oroitu du, hunkituta: "Euskaraz hitz egin behar duzu, zure herriko hizkuntza delako".



ELI GARZON

Duela 24 urte etorri zen Eli Garzon Euskal Herrira, Ecuadorretik. Poliki-poliki eta lotsarik gabe egin ditu euskaraz bizitzeko urratsak, familia bat eratu eta horretako kideekin hizkuntza horretan bizitzera iritsi arte. Euskarak zer eman dion? Hauxe: "Bizitza, lagunak, askatasuna... Bihotz erdia hemengoa dut".



DIEGO ELBIRA

Kotxeraseskoa da Elbira. Gogoratu duenez, duela hamarkada batzuk "erdalduna" zen bere inguruak: "Urrutitik ikusten nuen euskara, edo, hobe esanda, ez nuen ikusi ere egiten". 18-19 urte zituen euskaraz ikastea, institutu garaian. "Integratzen" lagundu dio euskarak.

**jalgí**  
kafetaria  
antzokia


Geltokia Kalea, 4 behea  
LASARTE-ORIA



BADATOR  
KORRIKA!

HARRO  
HERRI

Zatoz indarrak  
hartzera Korrika  
egiteko!



Martxoaren 19an (asteartea) **23.korrikak LASARTE-ORIA zeharkatuko du!**

**tz 1348 km** **21:56**  
Kostegi nekazal etxean (Urnietako bidea)

**Gurekin etorri nahi?**

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA | Zirkuitu Ibilbidea 2, 1-2 pab. | 20160 LASARTE-ORIA | 943 370 738 | info@antza.eus | www.antza.eus





**23.korrika** *æk*  
 Irundik Baionarat  
 2024ko martxoaren 14tik 24ra



TXINTXARRI ALDIZKARIA 2024-03-15 OSTIRALA



## Korrika txikia

- Oriarte BHI
- Sasoeta-Zumaburu
- Landaberri

- 360.km: Aterpea Merkatarien elkartea
- 361.km: Lasarte-Oriako Ikastetxeak
- 362.km: EH Bildu / Munterri AEK
- 363.km: Katxiporreta
- 364.km: Zubietak hartzen du

*æk*  
**23.korrika**  
**HARRO**  
**ERRRI**  
 Irundik Baionarat  
 2024ko martxoaren 14tik 24ra

### Goiz eta arratsalde, euskararen alde

23. Korrika hasi zen atzo Irunen, hilak 14. Milaka kilometro egingo ditu Euskal Herrian zehar hilaren 24an Baionara iritsi baino lehen; horietako hamasei Lasarte-Oriako izango dira. Hilaren 19an, 22:00ak aldera, Urnieta bidetik sartuko da euskararen aldeko olatua eta Hipodromo etorbidean Zubietako herritarrei emango diegu lekukoa. Ezkerreko irudian herrian zehar egingo den ibilbidea eta kilometro bakoitzeko testigua eramango duen erakunde, elkarte edo taldearen izena duzue.

Ordu batzuk lehenago, 11:00ak aldera, herriko ikastetxeetako haur eta gazteek hartuko dituzte kaleak. Korrika txikia Okendo plaza izango du irteera gunea eta helmuga. Bien bitartean, Oriarte BHI, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako zein Landaberri ikastolako ikasleen eskutik eskura auzo ezberdinetako txokoetatik igaroko da lekukoa. Lasterka amaitzean ez da jaia amaituko, ordea; musikak hartuko du plaza eta ikastetxeetako gazteek ekimenerako prestatutako koreografiak eskainiko dituzte.



**aldaz**  
 hortz klinikak · clínicas dentales

943-36 63 77  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

**BADATOR KORRIKA!**



RPS 181/19

Lasarte-Oria  
 Ola kalea, 10

Tolosa  
 San Frantzisko, 39

Elgoibar  
 San Bartolome, 22

# Legearen interpretazioa izan da arazoa

Sara Arruti Benito eta Mainer Galardi Fernandez de Agirre adituek 'Soilik bai da bai' legearen bueltako zarata mediaticoak eragindako itzalez hitz egin dute Antonio Mercero aretoan, bakoitzak bere jakintza arlotik: legegintzatik eta kazetarizatik, hurrenez hurren

## Txintxarri

Urte askotan bizilagun izandako bi lasarteoriatar berriro elkartu ditu jende askoren ahotan dabilen *Soilik bai da bai* izenez ezaguna den 10/2022 lege integralak, sexu askatasunari buruzkoak. "Duela urte erdi inguru, erakunde batzuen deiak jasotzen hasi nintzen lege horri buruz hitz egingeko eta ohartu nintzen falta zela ikuspuntu juridikoaren zatia txertatzea. Sarari eskatu nion laborpen bat egiteko eta bidali zidan txostenean dena oso argi azaldu zuenez, beharrezkoa zen berak ere hitzaldietan parte hartzea", azaldu du Galardik.

Arrutik hitz egin du aurrena, aipatu legea ikuspuntu juridikotik aztertuta. "Izaera integrala duela nabarmendu nahi dut, sexu askatasunaren berme organiko bat, gure gizartearen egiturazko arazoetako bat den sexu indarkeriari aurre egiten diona". Halaber, adierazi du mugimendu feministak historikoki egindako ekarpenak ere jasotzen dituela, ez dutela politikariek beste inoren ahotsa kontuan izan gabe idatzi eta onartu. Elementu nabarmenetako bat paradigma aldaketa izan da, izan ere, horren aurretik bi delitu mota bereizten zituzten, abusua eta eraso, eta erdigunean jartzen zutena zen ea horiek biolentziaz eta intimidazioz eginak izan ziren ala ez. "Biktimen bizkarrean jartzen zuten zama guztia, erasotuak izatearekin aski ez eta gertatutakoa frogatzeko prozesuan bi ezauzgarri horiek demostratu behar zituztelako". Legea onartu zutenean, arestian aipatutako bi delitu mota horiek eraso gisa kontsideratzen hasi ziren. Horrekin batera, erasotuaren onespina jarri zuten erdigunean, biolentzia eta intimidazioaren orde. Beraz, kontua ez ziren erasoaren ezauzgarriak, baizik eta erasotuak baimena eman zuen ala ez.

Abusuak eta erasoak bereizteari uzteak eragin zuen gizartearen



Arruti eta Galardi, 'Soilik bai da bai' legeari buruzko azalpenak ematen. TXINTXARRI

"alarma" sortu duen ondorio bat: akusatuen zigorrak jaitea. "*Soilik bai da bai*-ren aurreko Kode Penalaren arabera, bortxatzeagatik zigorrak sei eta hamabi urte artekoak ziren, eta, ostekoan, lau eta hamabi bitartekoak". Arrutik esplikatu duenez, gutxienezko kartzelaldi epea jaitsi zuten juridikoki "intentsitate gutxiagokoak" ziren ekintza batzuk sartzeko, esate baterako, ukituak. Horren aurrean, dena den, zigortuak izan direnetako askok eskatu dute euren zigorrak berrikustea eta kondena denbora jaitea lortu dute, beste lege guztietan aplikatzen den atzeraeraginkortasun printzipioagatik, "egiturazkoa" dena. "Kontua ez da atzo bertan norbait bortxatu zuen pertsona bat dagoeneko kalean dagoela, baizik eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten gaizkileak ari direla aske uzten", gehitu du Galardik.

## Arazoa, interpretazioa

Biek ala biek argi dute zergatik gertatzen ari den hori: "Interpretazioa izan da arazoa, ez legea bera". Izan ere, tokian tokiko auzitegiek "nahi dutena" egin dute eskaerak aztertzerakoan, irizpide orokorreki jaramonik egin gabe.

Arruti: "Orain arteko jurisprudentzia kontuan izanda, esan zieten ezin zutela zigorrak berriki baldin eta lau eta urte hamabi arteko tartean sartzen bazen, baina ez dute errespetatu. Zigor minimoaren kopuru bat bestearengandik ordezkatzeko hutsetik harago, kasu bakoitza aztertu eta lege berriaren arabera erasotzailea nola zigortu aztertu beharko lukete, kontuan izanda delituak fusionatu egin dituztela".

Kazetaritzaren alorretik jorratu du gaia Galardik. *Laugarren boterea* izenez ezagutzen dira komunikabideak, gizartearen agendan eta iruditeria kolektiboan eragiteko duten gaitasunagatik. Afera honetan, zenbait hedabidek "apropos" hartu dituzte *Soilik bai da bai* legearekiko jokabide batzuk eta mezu jakin batzuk zabaldu. Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak zerrendatu ditu: mugimendu feministak historikoki aldarrikatu izan dituen kutsu kontserbadorea ematea; mugimendu feministari eraso egitea; eta aurreko legealdiko Berdintasun Ministerioaren aurka egitea, Irene Montero ministroa kargu gabetean eta botere eremu horietan eragiteko ahalmenean eragiteko.



Idoia Garzes Aldazabal, irakurle txokoko kideez inguratuta, solasean. TXINTXARRI

## Arrastoa uztea izan da idazlearen nahia

Idoia Garzes idazle lasarteoriatarra gonbidatu dute irakurle txokora; 'Mendiko gaitza' eleberriaz solastu dira

## Txintxarri

Idazlearen aurkezpen labur bat eginez eman dio hasiera, Aintzane Usandizaga dinamizatzaileak, saioari. Kontatu du Garzes kazetaria dela ikasketaz, eta gidoigile eta erredaktore lanetan aritu dela urte luzez. Horrez gain, idazlea, mendizalea eta txistularia ere badela azaldu du, eta orain arte idatzi dituen lanak aurkeztu ditu: Lizardi saria jaso zuen *Hari single bat*; Zubikarai beka irabazita idatzi duen *Mendiko gaitza*; eta Euskadi Sarietara nominatuta egon zen *Kukuaren kantua*, eta, gazteei zuzendutakoa, argitaratu berri dena: *Dei galdu bat*.

*Mendiko gaitza* mintzagai, hasi dira, gero, taldeko kideak inpresioak partekatzen. "Oso gustura" irakurri dutela azpimarratu dute askok, eta bakarren batek ere aipatu du, kontakizunaren hasieran ez bezala, irakurtzen joan ahala "harrapatu" egin dituela eleberriak. Nabarmendu dute, baita ere, Garzesen mendizaletasuna agerian geratzen dela nobelan, eta berak ere egin dio aipamena horri: "Jende askok esan dit ni ikusi nauela". Mendizale amorratua da Garzes, eta testuinguru horretan kokatzen da istorioa: mendian. Arlet Anaut izeneko emakume bat da protagonista, idazlea bezala, mendizale amorratua da hori ere, eta mendira egingo duen irteera batean, bertako buzoian txartel bat topatuko du. Momentu horretatik aurrera katramilatuko zaio bizitza, eta bere burua katramila horretatik askatzeko

ahaleginean murgilduko du irakurlea.

## Nobela beltzaren, hankaz gora

Eleberriak egiten dituen atzera-urrerako begiradak ere aipatu dituzte irakurleek, eta bertan agertzen diren hari mutur solteak nola elkar gurutzatu eta lotzen diren ikustea ere atsegina egin zaie. Hizkuntzaren mailaz ere mintzatu da baten bat; aipatu du "erraz ulertzekoa" dela.

Eleberri beltzak bere gain hartzen dituen hainbat ezaugarri topa ditzake irakurleak irakurketarekin aurrera egin ahal, baina horietako beste batzuk nola irauli dituen ere antzemango du, eta hori ere izan dute ahotan. Hirigune urbanoetan kokatu ohi dira eleberri beltzetako istorioak, ez da hori, ordea, *Mendiko gaitza*-ren kasua, arestian esan bezala, mendian gertatzen baita. Protagonista, gainera, nobela beltzetan agertzen diren emakumeen irudiengandik urrundago; "Nobela beltzetako emakumeen irudia, askotan, misoginoa eta paternalista izaten da. Hortik aldentu nahi nuen, eta argi neukan nire kontakizuneko protagonista emakumea izango dela. Inoren beharrik ez eta bere kasa ibiltzea maite duen emakume bat da".

Egileak nabarmendu du "oso ongi" pasa duela *Mendiko gaitza* idazten, eta, bazekiela berak hainbeste gozatuta, irakurleak ere hala egingo zuela. Eleberriaren izenburuaren gainean, galdetu die ea ba ote zekiten zergatik erabili duen hori. Azaldu die, liburuarekin bere nahia "arrastoa uztea" dela.



Leire Ormazabal ena 2025 urteko karteletako irudia izango da. Irudian, sarituak eta udal ordezkariak. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako mugimendu feministaren genealogia izan zuten hizpide bertsotrikipoteoan. TXINTXARRI



Kolore moreko jantzi edota zapiak soinean, dozenaka herritarrek parte hartu zuten martxoaren 8an Udalak deitutako eguerdiko elkarretaratzean. TXINTXARRI



Zaintzaren auziari nagusitasuna eman zion mugimendu feministak deitutako mobilizazioak. Komunikatu bat irakurri zuten, Okendo plazan, amaitzean. TXINTXARRI



Makelur antzerki taldeak printzesen eskola berezi baten gaineko lana eskaini zuen. TXINTXARRI



'Como dios manda' filmaren bideoforumaren bidez landu dute berdintasuna Biyak Bat adinekoen egoitzan. ISAAC FARRE

# Berdintasuna eta zaintza, jomugan

Emakumeen Nazioarteko egunaren harira Lasarte-Oriako Udalak eta Asunak\* neska gazteen talde feministak antolatutako jarduerak

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko eguna izan zen eta Lasarte-Oriako egun hori gogora ekartzeko hainbat ekimen egin ziren.

Eguerdian Lasarte-Oriako Udalak deitutako elkarretaratzeak eta arratsaldean, mugimendu feministaren mobilizazioak herritar ugari bildu zituzten.

Gau partean, Makelur antzerki taldearen antzerkiak gozatu ahal izan zuten kultur etxera hurbildu zirenek eta afaria ere izan zen Casa Humadan.

Egunaren aurrekari gisa, Lasarte-Oriako udal ordezkariak M8a gai duen kartel lehiaketako sari banaketa egin zuen. Eta bestetik mugimendu feministaren garapena izan zen hizpide Asunak-ek antolatutako trikipoteoan.

Ondoko orrialdeetako hitzaldi eta literatura solasaldia edo Biyak Bat elkartearen egin den bideoforuma ere izan dira. Baina ez dira jarduerak amaitu; adin guztietarako ekimenak izango dira aste honetan zehar.

# UDAKO TXOKOAK

lagunen **batura**, gure herriko **uda!**

#gai #jai #jarrai #blai #bidai  
#guai #nahi #garai #mestijai #bail!

## Ordutegiak eta prezioak

Hilabete osoa: Uztailaren 2tik 30era (25 eta 26 jai)

1. hamabostaldia: 2tik 12ra | 2. hamabostaldia: 15tik 30ra (25 eta 26 jai)

	Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba	3 anai-arreba
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00 09:00-13:00	112 € 150 €	102 € 140 €	92 € 130 €
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00 09:00-13:00	122 € 160 €	112 € 150 €	102 € 140 €
HH3-HH4 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00 09:00-13:00	66€ 87€	61€ 82€	56€ 77€
HH5-LH6 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00 09:00-13:00	72€ 92€	67€ 87€	62€ 82€

\*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

GOITXOKO ZERBITZUA

09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA

> 15:15ak arte.

Hilabetea: 126€

Hamabostaldia: 71€

\*LEKUA geldituz gero egun solteak har daitezke.

Ordaintzeko modua: Kontu korrontetik egingo da kobrantza.

## Izen emateak

## Leku mugatuak



[www.labur.eus/txokoak2024](http://www.labur.eus/txokoak2024)

martxoaren 18tik  
maiatzaren 3ra

Informazio gehiago:  
Tel: 943-37 14 48  
[aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus)





# HH3-HH4 *Ei txiki!*

(2019 eta 2020 bitartean jaiok)

## JARDUERAK

- Psikomotrizitate saioak.
- Ipuinetatik eta jolasetik abiatuta asmakuntza plastikoa.
- Gorputz adierazpena eta soinuarekin jolasean arituko gara.
- Tailerrak, Jolasak...



# HH5-LH2

## *Adi lagun!*

(2016 eta 2018 bitartean jaiok)

## JARDUERAK

- Jostakirola saioak.
- Gorputz adierazpenaren bidez mundu berri bat eraikiko dugu.
- Talde jolasak, Irteerak...



## LH1 eta LH2

(aukeran 3 egun,  
Astigarragara!)

- 2tik 19ra Udako Txokoetan.
  - 22tik 24era udaleku itxietako txanda txikia Astigarragara.
  - Hilabetea bukatzeko Udako Txokoetan!
- 186 € | 219 € (goiztxokoarekin)

# LH3-LH6

## *Hi gazte! Anima hadi!*

(2012 eta 2015 bitartean jaiok)

## JARDUERAK

- Abentura eta kirola.
- Natur ekintzak.
- Talde jolasak eta probak.
- Tailerrak, irteerak eta jarduera bereziak.





OREKI FUNDAZIOA

## Herriko partaidetzaz hausnartuz

*Berrikuntza Politikoa Esploratzen: Lasarte-Orian parte hartzearen kultura biziberritzeko ikaskuntzak ikerketa proiektuaren baitan, Oreki fundazioak antolatutako mahai inguru zikloaren lehen saioa aurrera eraman dute Ganbo Iturri elkartearen egoitzan. Saio horretan*

auzogintzaren ikuspegitik Lasarte-Orian parte hartzeak bizi duen egoera jorratu dute Ramon Ormazabal, Estixu Alkorta eta Anne Ugarteburu herritarrek. Gai ugari buruz hitz egin dute, hala nola, gazteen antolatzeko modu berriez edota elkarten profesionalizazioaz.

## Espetxeko lanak, ikusgai

Dotore-dotore daude Usurbilgo Artzabal jatetxeko hormak, Aitzel Iriondo lasarteoriatarraren zenbait margolan zintzilik dituztela. Bertako jabeek jakinarazi dute "sekulako ilusioarekin" prestatu dutela erakusketa bat herritarren koadroekin eta maiatz hasierara arte egongo dela ikusgai bezeroentzat. Espetxean margotu ditu sormen lan horiek.



ARTZABAL JATETXEA

## Eskaileretan trabatuta

Adarra kaleko eskaileretan auto bat geratu da trabatuta asteon. Gertaera gertutik ikusi duten bizilagunetako batek TXINTXARRI-ri kontatu dionez, gidaria nahastu egin da, uste baitzuen ibilgailu batekin jaisteko moduko aldapa bat zegoela hor. Udaltzainak azkar bertaratu dira ezbeharraren tokira eta minutu gutxi batzuk behar izan dituzte autoa bertatik erretiratzeko, grua bat erabilia.



ISAAC FARRE



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Goazen lagunok...!!!

*Dragoi bola* 80 eta 90 hamarkadetan jaio ginenon erreferentziatzeko marrazki bizidunen telesail famatua izan zen. Gure haurtzaroari eta nerabezaroari estuki loturikoa, Akira bere egilearen heriotzarekin, berri egin ditugu askok, garai haietako bizipenak, momentuak eta bereziki gure pantaila aurreko aisialdian erabat nagusi ziren pertsonaia hauen jarduerak.

Garai hartako marrazki bizidun askoren istorioen mamia eta edukia aztertuz gero, lehen begi kolpean, alderdi txarrei so egiteko joera izaten dugu. Garbi esan dezakegu, Son Goku eta bere lagunaren artean biolentzia, borroka eta mota guztietako gudak eguneroko bizigarria zirela. "Beste garai batzuk ziren" esaldian babes gaitzek baina garai hartako haur eta gazteen begi bistan, egunero-egunero normalizatzaera eramaten genituen horrelako jarrerak. Ezingo dugu ukatu, fikziozko istorio hauen eredu matxista. Emakumearen irudia beti gutxietsia eta sexualizatu agertzen zitzaigun. Erabat deitoragarria. Gerora, beste hainbatekin bezala, moldaketa eta egokitzapen saiakerak izan zituzten arren, telesailaren berariazko irudirekin oso lotuta joan ziren borroka, biolentzia eta emakumearenganako gutxiespenak. Pisuzko aspektu negatibo hauetaz gain, ziur nago beste hainbat alde ilun ere izango dituela telesailak baina lerro gutxitan azaletik eta asko pentsatu gabe, gorritz borobiltzeko moduko bi plazaratzea erabaki dut, egun hauetako hausnarketa pertsonal modura eta egiten ari zaizkion gorazarre ugariei kontrapuntua jarritz. Jakinda, ni neu izan nintzela zaletu eta gaur egun ere maitasuna gordetzen diodala aitortuz.

Aldiz, onartu behar da EITBk garai hartan egindako apustu honek izan zituela bi hamarkadetako gazte eta haurren hainbat ohituretan eragiteko gaitasuna eta kasu honetan, ene ustez, modu positiboan. Garrantzitsuena, Krilin, Kaito, Bulma eta enparauek zerabilten hizkuntza euskara zela zen. Euskal hiztunon euskara maila hobetzeaz gain, fan fenomeno hark euskaldun berri eta ez horren berri andana jartzen zuen pantailen aurrean eta horrek ezinbestean sortzen zituen euskararen inguruko sinergiak. Izan telesailaren inguruko elkarriketetan, baita euskararen zuzentasun eta erabilera egokien inguruan. Telesail japoniar batek sekulako indarra lortu zuen euskararen normalkuntzarako bidean eta hau probestu beharra zegoen. Nire ustez ongi probestua izan zen gainera.

Bigarrena eta agian askorentzat horren garrantzitsua izango ez dena, marrazketa eta arte munduarekin lotura estua duena da. Garai hartan, leku guztietan ikus zitezkeen gaztetxoak marrazki bizidunen kalkoak egiten, marrazkien irudiak marrazten edota hauetatik abiatuta mangaren munduan txertatzen, berau atzerritik zetorren marrazketa eredu indartsu berritza hartuta. Marrazketarekiko interesa piztu zuen hainbat gaztetxorengan eta mundu horrekiko erakaragarritasuna areagotu zen. Askoren inspirazio iturri izateraino eta ibilbide artistikoen hastapen ere bihurtu ziren batzuentzat.

Azal-azalekin beraz eta asko pentsatu gabe Akira eta *Dragoi bola* telesailaren inguruan eztabaida irekitzeko bi abiapuntu, bi kontrapuntu plazaratzeko ariketa izan da gaurkoa. Nostalgia ukituz, egindakoa. Maitatua duzun horrek askotan, maitatua izanagatik ez baitu egokia behar eta gorrotoa edo desadostasuna agertzen diozun horrek ere, izan baitezake beti leihoren bat irekia argi izpiak bertatik sartzeko moduan izan daitezten. Hobetu ditzagun, "garai desberdinen" eta "ohiko jarrera eta ohituren" berrikusketa eta hausnarketa prozesuak askotan mingarriak izanda ere.

## ESKUTITZA

OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO HERRITAR TALDEA

### Medikurik al duzu?

Ziurrenik zeuri gertatu zaizu edo inguruko bati entzun diozu: anbulategira joateko beharra (ez kapritxo) eduki eta "Ez, ez duzu medikurik" entzun behar. Harrigarria bada ere, milaka omen gara medikurik omen ez daukagun lasarteoriarrok. Eta kontsulta lortuta ere, zenbat mediku ezberdinekin egokitu zaizu egotea azkenaldiotan? Medikua ezberdina izan da kontsulta bakoitzean? Ez ari gara ez esajartzen ez asmatzen, gertatzen ari dena adierazten baizik.

Posible al da horrela ezinbestekoa den taxuzko ezagutza eta konfiantza mediku eta gaixoaren artean? Eta beti mediku berekin artatua izateko zoria izan baduzu ere, "Barkatu, gaitz asko dituzu zuk eta kontsulta zerrenda luzea daukat denak artatzeko, gaur bat artatuko dizut; eskatu beste hitzordurik beste gaitzetarako" entzun izan behar duzu agian. Hau guztia kontsulta lortzeko epeak, espezialistetarako itxaron zerrendak, edota larrialdi zerbitzuetan ezagututakoak aipatu gabe. Ez dugu kasuistikan luzatzeko asmorik, ziur zuetako askok antzeko pila izango baitituzue kontatzeko.

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Platarformen Koordinakundearen ustez, hau guztia ez da kasualitatea. Osakidetzaren egungo egoera arduradun politikoei egindako plangintza eta kudeaketa politiko arduragabearen eta negatiboaren ondorioa da. Lobby sanitarioen interes merkantilei jarraituz, osa-



Sinadurak bildu zituen taldeak hilaren 9an, Okendon. TXINTXARRI

sun-asistentzia pribatizatzeo politika kontziente bat eraman da. Horren adibidea da 15/97 Legea, erakunde pribatuak osasun-laguntzan sartzeari ahalbidetu zuenak, egoera larriagotzen lagundu duena. Osasungintzaren pribatizazioa modu zuzenean gauza daiteke, gaixoak klinika pribatuetara edo kontzertatuetara desbideratuz, "peonaden" deitutakoen bitartez edota mutuen eskumenak zabalduz, gertatzen ari den moduan. Baina zeharka ere egin daiteke, lehen arreta ahulduz eta, horrela, baliabide ekonomiko nahikoak dituzten herritarrek aseguru pribatuetara jo dezaten. Eta hau ere ari da gertatzen, bigarren mailako osasun publikoa sektore ekonomiko ahulenezat utziz.

Lehen Arretaren gainbeherak logika merkantil erantzuten dio argi eta oso garbi, osasuna merkantzia moduan ulertzen duena, ez eskubide moduan. Denok dakigu hobe dela prebenitza sendatzea baino, dudarik gabe, bai-

na... diru gehiago ematen du sendatzeak prebenitza baino: botika kontsumo gehiago, analitika eta frogak gehiago, espezialista kontsulta gehiago eta klinikako egonaldi gehiago. Esandakoa, etekin gehiago. Eta herritarra eskubide-subjektu izatetik bezero izatera pasatzen da.

Hau guztia kontutan hartuta, Osasun Publikoaren Alde Lasarte-Oriako Plataformatik bat egiten dugu datorren LARUNBATEAN, martxoak 16, Donostian, 17:00etan, Boulebarretik abiatuta, osasun publiko eta kalitatezkoaren alde egingo den manifestazioarekin, eta gonbidapena luzatzen diegu lasarteoriar guztiei bertan parte hartzeko.

Bide batez, Osasun Publikoaren Alde herrian sortu berri den Plataforman parte hartzeko interesa dutenei gonbidatzen diegu datorren martxoak 21, osteguna, 18:00etan, Kultur Etxeko liburutegiaren ondoko 3. bilera gelan egingo den bilerara.



LASARTE-ORIAKO UDALA

### Energia Komunitatea, abiatzear

305 herritarrek izena eman dute, momentuz, Lasarte-Oriako Tokiko Energia Komunitatean. Berriki egin dute bazkideen lehen batzarra, eta honako gai ordena landu dute: Aldi baterako batzarra izan den bitartean egin den jardueraren memoria; zuzendaritza batzordearen eraketa; eta, hileko kuotaren zenbateakoa erabakia.



TXINTXARRI

### Bertsoak, gelatik plazara

Tokian tokiko bertso eskoletako ikasleek elkar ezagutu eta gela barrutik plazara zubi lana egiteko xedez, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak *Gelatik Plazara* abiarazi zuen iaz. LH4 eta DBH2 maila bitarteko haurrek parte hartuko dute sariketan, tartean, Lasarte-Oriako Earra bertso Eskolako kideak.

bertako  
igogailuak | ascensores  
KORRIKAN ERE

EUSKARA,  
GURE HELBURU  
PARTEKATUA

943 903 450 bertoko.eus



# Nagusien bikotea, Udaberriko finalean

Intzako Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilletak Murumendi taldeko Leunda eta Usabiaga 22-20 gairitu dituzte finalerdi borrokatuan. Udaberri txapelketako txapela Legazpiren aurka jokatuko dute hilaren 24an oraindik zehazteke dagoen leku batean

## Txintxarri

Pauso handia eman zuen Intzako Nagusien 2. mailako bikoteak hilaren 9an, Michelin kirol guneko pilotalekuan. Murumendiko Leunda-Usabiaga bikotea izan zuten aurrez aurre Udaberri txapelketako finalerdian. Etxeko bikoak borrokatu behar izan zuten markagailuari itzulia eman eta saria eskuratzeko. Hilaren 24an Legazpiren aurka jokatu du finala.

Neurketa borrokatua zirudien lehen momentuetan, bosna berdinduta egon ziren, baina Murumendik neurketaren erritmoa aldatu zuen. Intzako bikoteak ozta-ozta egiten ziren aurre beasaindarren erasoerak eta aurkariak aurre hartu zuten markagailuan. Etxekoak gerturatzeko saiatu arren, pixkanaka errenta handitzen joan Murumendi eta 14-8 egotera iritsi ziren.

Murumendi nagusiki gailenduko zela zirudien arren, puntu horretan partidak itzulia eman



Murumendiko pilotaria jokoan, finalerdikoan. TXINTXARRI

zuen. Intzako bikoak pilota aldatu eta beasaindarren jokoak gorabehera bat izan zuten. Etxeko taldeak ongi baliatu zuen egoera neurketa berdintzeko (18-18) eta berriro ere indarrak parekatu ziren. 20na zihoazela, Intzako bikoak ongi asmatu zuten eta bi tanto eginez garaipena erdietsi zuten.

Norgehiagokak bere alde txarra ere izan zuten, ordea; Urdanpilletak min hartu zuen eskuetako batean. Intzako kidea finalerako prest egotea espero dute herriko kirol elkarteko arduradunek.

Finala hilaren 24an izango da oraindik zehaztu gabeko pilotaleku batean. Intzako kideek jakitera eman dutenez Michelin kirol guneko pilotalekua eskaini dute. Ziurra den gauza da, Legazpiko Aguirre eta Telleria aurkari izango dituztela; beste finalurrekoan Intxurre 20-22 garaitu zuen Legazpiko bikoteak.

## Infantilak ere lehian

Errendimendu mailan ere hitzordu garrantzitsua du hurrengo jardunaldian infantilen 3. mailako bikoteak, Ekialdeko txapelketako finalerdia.

Unax Urdangarin/Aday Lucero eta Unai Lizarraga gaztetxoek Alde Zaharra 3 bikoaren aurka neurtu beharko dituzte indarrak sailkapena eskuratzeko.



LOKE GIMNASTIKA

## Benjaminen, topaketei agur

Escolarteko benjamin mailako bigarren eta azken topaketa jokatu zen hilaren 9an, Hernaniko kiroldegian. 28 taldek eta bederzti bakarkako gimnastek euren lanak erakutsi zituzten tapizean. Lasarte-Oriatik Landaberri 1 eta 2 taldeek parte hartu zuten eta Mirian Prieto entrenatzailearekin landutako koreografiak trebetasunez egin zituzten. Amaitzean guztiek diploma bat jaso zuten. Herriko gimnastek ez dute atsedenik izango eta hilaren 17an, amateur txapelketako bigarren faseari egingo diote aurre.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Trinkoko Mikel Izagirre herritarra Euskadiko hirugarren sailkatu da

Beterano 2. mailako podiumera igo da Izagirre. Añorgako III. Duatloian jardun ona izan dute herritarrek

## Txintxarri

Añorgako III. Duatloia lehiatu zen hilaren 10ean eta Euskadiko sprint txapelketa izan zen jokoan. Lasarte-Oriako zortzi herritar izan ziren lehian eta Trinko taldeko Mikel Izagirre beteterano 2. mailako podiumera igo zen, brontzezko domina jantzi zuen.

Parte hartzaileek Añorga eta bere inguruko hiru eremuri egin zieten aurre: 5 km. korrika, 19 km. txirringan eta azkenik, beste 2,5 km. lasterka. Aimar Murua eta Virginia Berasategi izan ziren probako garaileak.



Izagirre (eskuinean), podiumean. TRINKO

Lasarteoriatarren artean, lehen Zumeatarra taldeko Ibai Iza-

girre izan zen 23 urtez azpiko bederatzigarren sailkatuz (01.10.22). Trinko taldeko Mikel Izagirrek, aldiz, beteterano 2. mailako orokorrean laugarren eta Euskadiko hirugarren amaitu zuen proba (01.18.30). Lehen postuetan izan zen ere Yepa! taldeko Laura Arroyo (01.40.44) herritarra; zazpigarren orokorrean eta bosgarren absolutu mailan.

## Beste probak

Ez da Añorgakoa herritarrek parte hartzen duten lehen proba izan. Urtarrilean hasi zen duatloia denboraldia horretako 17an, Amorebieta Etxano TEP Duatloian izan ziren Urko Izagirre, Ibai Izagirre eta Unai Somovilla herritarrek. Koldo Velascokin batera Zumeatarra A modura egin zuten lehian eta 01.06.17 marka eginez 22. postuan amaitu zuten.

## Mutiloako meatzeak ezagutzen

Ostadar Ipar Martxako kideek martxoko irteera egin zuten hilaren 10ean, igandearrekin; Mutiloa inguruan ibili ziren. Ormaiztegitik atera eta behin Mutiloara iritsita, meategien ibilbideko Troi bidea hartu zuten. Inguruaz gozatzeaz gain, meategien historia ere ezagutu zuten. Ostean, berriro Ormaiztegiara itzuli ziren etxerako bidea egiteko.

## Squash txapelketa sozialeko izena ematea martxan da

Lasarte-Oriako Udalak hogeita hamalagarren Squash txapelketa sozialeko izena emateko asmatu du. Txapelketa apirilaren 8an hasi eta ekainera arte jokatu da.

Parte hartzeko asmoa duten kirolariek hilaren 24a arteko epea dute Maialen Chourraut Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa 11,60 eurokoa da udal kirolde-



2023 urteko sarituak. TXINTXARRI

gietako bazkideentzat. Parte-hartzaileek baldintza bat bete behar dute: 14 urte baino gehiago izan.


## Eguzki Goxokis Goxua, txapelketako lehen postuen bila

Gehiegizko konfiantzak sortutako egoerari aurre egin eta 8-3 gainditu du bigarren faseko lehen jardunaldia

### Txintxarri

Ongi hasi du Eguzki Goxokis Goxua taldeak Ligako bigarren fasea. Maialen Chourraut kiroldegian Erain izan zuen aurrez aurre Gorka Redondoren taldeak. Prestatzaileak azaldu duenez, aurkariak ez zuen talde osoa ekarri eta horrek azken emaitzan -8-3 etxekoan alde- baldintzatu zuen.

Neurketa hasi eta bigarren minuturako 2-0 zen aurretik etxeko taldea. Hirugarren gol bat ere egin zuten eta emaitzaren konfiantzak jokalariek euren posizioak aurreratzea ekarri



Eguzkiko jokalaria, ate aurrean. TXINTXARRI

zuen. Tamalez, bi kontraerasoetan Erainek sarera bidali zuen baloia eta estuasun larrian jarri zuen etxeko taldea.

Eguzki Goxokis Goxuak-eko kideek ez zuten garaipenak ihesi

egitea nahi eta defentsa lanak zainduz, erasoan jo eta neurketa kontrolpean izan zuten berriro. Beste bost gol igo ziren etxekoan alde; Erainek, aldiz, bakarra eskuratu zuen.

Lehen bi sailkatuen artean egoteko, neurketaz neurketa joango da kadete taldea; hurrengo aurkaria Antiguoko da.

### Euskadirekin lanean

Bestalde, apirilean jokatu den 12 eta 14 urtez azpiko Erkidegoen arteko txapelketa prestatzen ari da Euskadiko selekzioa eta entrenamendu saioa egin dute hilaren 13an Loiu, Bizkaian. Lan saioan Eguzki AFko zazpi kide izan dira; 12 urtez azpiko taldean Inhar Lasa, Julen Mauleon, Julen Murillo, Aimar Garcia eta Unax Oliva eta 14 urtez azpikoan Alex Corchuelo eta Unax Urdangarin.



LOTME

## Elur giroaz ikasten eta gozaten

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) kideek neguko irteeraz gozatu zuten hilaren 2an eta 3an. Irteera otsailaren 24-25eko asteburuan aurreikusia bazegoen ere, eguraldiaren iragarpenarengatik atzeratu zuten. Pirinioetako Piedrafita de Jaca (Huesca) herrian elurraz gozatzear gain, eguraldi baldintza horietan mendian ibiltzeko tresnak eta materialak ezagutu eta era egokian nola erabiltzen diren ikasi zuten, bata ibilbideetako planifikazioa egin eta segurtasuna nola bermatu ere.

## Taula A taldea bigarren mailako igoera fasea jokatzeko ari da

Lasarte-Oriako xake klubeko ordezkariak euren mailako B multzoko taldeei egin behar diete aurre fase berrian

### Txintxarri

Gipuzkoako Ligetan parte hartzen ari diren Taula Xake klubeko taldeak fase ezberdinetan ari dira lehian.

Taula A taldeak lehen fasea amaitu zuen otsailean eta bere multzoko burua lortu ostean, igoera eta liga du jokoan. A eta B multzoko lau talde onenek egin dute aurrera txapelketan. Lehen fasean jokaturako neurketak kontuan hartzen dira eta ondorioz, Zaleak, Txaturanga, Eibar eta Bergara A izango ditu aurkari hurrengo asteetan.



Taula B taldeko kideak, jokoan. TXINTXARRI

Igoerako lehen jardunaldian Zaleak bisitatu du Taulak Bergaran eta 2,5-1,5 izan da emaitza. Jose Ignacio Echeverriak bere

partida irabazi zuen eta Miguel Maria Barojak, aldiz, taulak egin zituen. Alabaina, taldeak 9,5 defentsa puntu batu zituen eta horri esker, sailkapeneko bigarren postuan da. Hilaren 16an, Bergara Aren bisita izango du Taulak.

### Oraindik lehian

Hirugarren mailako lehiaketa fase erregularrean dago, ordea. Hilaren 9an, Beraun Bera C taldearen aurka neurtu zituen indarrak Taula B taldeak, Blas de Lezoko lokalean eta bina berdindu zuten. Miguel Angel Garciak eta Diego Alonsok euren aurkariak gainditu zituzten eta horri esker, bi puntu berri eskuratu dituzte herriko xake jokalariek.

Hiru jardunaldi faltan, bederatzigarren postuan da B taldea. Hilaren 16an, Gros L izango du aurkari, Donostian.

## 'Aurten 4ak baietz!' porra hilaren 25ean jarriko da martxan

Euskal Herriko Itzulia izango da porrako lehen proba. Apirilaren 1era arte bete ahalko dira txartelak

### Txintxarri

Txirindularitzako zaletuek aurten ere 1.600 euroko saria eskuratzeko aukera dute. Ostadar SKT'k *Aurten 4ak baietz!* txirindularitza porra antolatuko du eta Euskal Herriko Itzulian, Giroan, Tourrean eta Espainiako Vueltan puntu gehien lortzen dituen txartelarentzat izango da sari nagusia.

Apirilaren 1ean hasiko da lehen proba Irunen eta hilaren 25etik egun horretara arte, kirol elkarreko webgunean zein herriko tabernetan boletoak bete ahalko dituzte herritarrek.

Sariei dagokionez, lasterketa bakoitzeko lehen sailkatuak 400 euro irabaziko ditu eta bigarrenak, berriz, 200 euro; etapako irabazleek 65 euro lortuko dituzte eta sei urdaiazpiko ere zozkatuko dituzte.

Antolatzaileek gogorazten dutenez, 1.600 euroak lortzeko lau porretan izen bera jarri behar da txarteletan eta gehienez, hamar txartel egin daitezke izen berdinarekin probako. Porraren gaineko informazio gehiago Ostadarren webgunean egongo da eskuragarri hurrengo astean.




## AITZEL IRIONDO IARTZA


CP DE SAN SEBASTIÁN / DONOSTIAKO ESPETXEA

Martutene Pasealekua, 1  
20014 - Donostia (Gipuzkoa)


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Nikole**  
Zorionak Nikole! Bost urte bete dituzu gaur eta egun luzez ospatzen jarraitzeko asmoa dugu... festarik festa!



**Eñaut**  
Zorionak etxeko bihurritxoari! Zenbat urte??? Biiiiiii! Muxu goxo bana etxekoan partez!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorionagurra.  
· Erabiltzailearekin sartu/  
Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.  
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK  
ARTE JASOKO DITUGU

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

**SALDU**  
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## GARAJEA

**ALOKATU**  
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

**ESKANTZUA**  
Banatzailea behar da Andoaingo zonaldean Berria egunkaria banatzeko. Bertarkoa izatea kontuan hartuko da. Kontratu mugagabea, lanaldi partziala, egungentian. Asteartetik igandera. Ezinbestekoa da norberak

bere ibilgailua izatea. Interesatuak bidali mesedez datu pertsonalak edo kurrikuluma [banaketa@bidera.eus](mailto:banaketa@bidera.eus) helbidera.

## ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetu laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke.

Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (baita asoz argitaratuko dira). Profesionalentzat, auzi 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitzete gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15	GIL
LARUNBATA, 16	URBISTONDO
IGANDEA, 17	URBISTONDO
ASTELEHENA, 18	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 19	DE ORUE
ASTEAZKENA, 20	GANDARIA-URIBE
OSTEGUNA, 21	LASA

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaqueur plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## OHARRAK

## Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administratzailea

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdallete, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 15

**LASARTE-ORIA Erakusketa**  
Korrikari buruzko erakusketa ikusteko aukera dute herritarrek. Herriko ikastetxeetako ikasleek ondu dute esposizioa. Sarrera doakoa da eta hilaren 18ra arte izango da hori bisitatzera joateko aukera.  
**Antonio Mercero aretoa, 17:00etatik 19:00etara.**

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Evaren Alabak taldeak *Cromlech* antzezlanaren emanaldia egingo du, elebitan. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.  
**Antonio Mercero aretoa, 19:30ean.**

**LASARTE-ORIA Dantza**  
*Shine* ikuskizunaren emanaldia egingo du Lasala konpainiak. XX. Dantza Zirkuituaren baitako ekimena da eta sarrerek 6 euro balio dute.  
**Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.**

**LEGAZPI Bertsolaritza**  
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketan parte



**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Iruindik abiatuta, Euskal Herriko herriak zeharkatzen ari da 23. Korrika. 11 egunez, 2.700 kilometro eginda iritsiko da helmugara, Baionara, baina, hori baino lehen, gure herrira ere helduko da. Hilaren 19an jasoko dute lasarteoriatarrek lekukoa, eta merezi duen harrera egin asmoz, askotariko ekintzez betetako egitaraua iragarri dute. Agenda honetan kontsulta ditzakezue jarduera guztiak.  
**Okendo plaza eta herrian barrena, 11:00etik aurrera.**

hartuko dute Earra eskolako ikasle Arait Ramos eta Maddi Lasak.  
**Muruazpi elkarte, 20:00etan.**

zenbait eragilek emanaldiak egingo dituzte eta ondoren aurtengo peto eta lekukoak banatuko dituzte. 17:45ean, Okendon abesti batzuk kantatuko ditu Xumela koruak eta ondoren kalejiran joango dira aretora kideak. Ikuskizuna amaitzean, Ttiriki Ttarraka eskolako

## LARUNBATA 16

**LASARTE-ORIA Jaia**  
23. Korrika aurkezteko gala aurrera eramango dute. Herriko

trikitariek girotuko dituzte kaleak.  
**Kultur etxea, 18:30ean.**

## IGANDEA 17

**LASARTE-ORIA Bertsolaritza**  
*Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua egingo dute Korrika Kulturalaren barruan. Ane Labaka, Oihana Iguaran, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita ariko dira bertsotan; Maite Berriozabalek jarriko dizkie gaiak. Musikiariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti.  
**Kultur etxea, 12:30ean.**

**LASARTE-ORIA Zinema**  
*Corre Tiger*, *corre* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.  
**Kultur etxea, 17:00etan.**

**LASARTE-ORIA Zinema**  
*Secretos de un escándalo* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTELEHENA 18

**LASARTE-ORIA Literatura**  
Ali Salem Iselmu idazle sahararraren *Amor en la villa del Mar Blanco* liburuaren aurkezpena egingo dute. Kristina Berasain Tristan kazetaria izango da moderatzailea. Sahararekin

Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak antolatutako ekimena da.  
**Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 19

**LASARTE-ORIA Jaia**  
23. Korrika. Egun horretan, gauez, zeharkatuko ditu 23. korrikak herriko kaleak, eta Lasarte-Oriara iritsi bitartean, behar bezalako harrera egiteko, askotariko jarduerak aurrera eramango dituzte herritar gazte zein helduk. Hau da iragarri duten egitaraua:

**11:00etan:** Korrika txikia. Herriko ikastetxeetako ikasleek euskararen alde lasterka egingo dute, erdigunean barrena.

**17:00etan:** gaztetxoek jokoak. Ostadar SKTk jarduera batzuk antolatuko ditu gaztetxoentzako. Bitartean, Porrotx pailazoak alaituko du plaza.

**17:30ean:** Zirku Tailerra. Lau guno izango ditu.

**19:30ean:** Pintxo dastaketa herriko elkarte gastronomikoen eskutik. Horrez gain, Oaintxe in deul txaranga eta herriko txistulariek herriko kaleak alaituko dituzte.

**22:00etan:** Korrika herrira iritsiko da. Urrietatik etorriko da 23. Korrika gurera. Orubete inguruz kaleak zeharkatuko ditu, Hipodromo etorbidean barrena Usurbilera joateko gero.  
**Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.**

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
OHOREZKO ERREGIONALA
<b>Elgoibar CD - Ostadar SKT</b> Igandea. 18:00. Minbeto, Elgoibarren.
GORENGOEN MAILA
<b>Ostadar SKT - Mariño CD</b> Igandea. 11:05. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
<b>Texas Lasartearra CF - Hernani CD B</b> Larunbata. 18:05. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
<b>Axular Lizeoa B - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Puio, Donostian.
OHOREZKO JUBENILA
<b>Touring KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 19:30. Fanderia, Erreterian.
JUBENILEN I. MAILA, IGOERA
<b>Texas Lasartearra CF - Antigua Luberrri</b> Larunbata. 16:10. Michelin kirol gunean.
<b>Ostadar SKT - Mondragon CF B</b> Igandea. 14:45. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA
<b>Euskalduna And. SD B - Ostadar SKT C</b> Larunbata. 16:00. Ubitarte, Andoain.

<b>ARETO FUTBOLA</b>
I. MAILA
<b>Eguzki Arkupe Rehab. - Idi. BaiReformas</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
<b>Eguzki ISU Lehoak - Makax AFKK</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
<b>Goleiri KE - Eguzki Bod. Ayesa</b> Larunbata. 12:15. Aldiri kirol., Urrebxun.
<b>SASKIBALOA</b>
I. MAILA
<b>Ostadar SKT - Goizper Group BKE</b> Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
<b>Ast. Mundarro KE B - Ostadar SKT</b> Ostirala. 20:15. Udal kirol., Astigaragan.
KADETE PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - GSR Ointxe!</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>BOLEIBOLA</b>
EUSKAL LIGA
<b>CV Gallartaren Ahotza - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Abanto-Zierbana, Bizkaian.

EUSKAL LIGA, II. MAILA
<b>Ostadar SKT - Geboko Aixerrota</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA
<b>Ipar Titanak - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Mons kirol., Donostian.
JUBENIL MAILA
<b>Ostadar SKT - Bera Bera</b> Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>PILOTA</b>
INF. 3. MAILA, FINAL ERDIA
<b>Alde Zaharra 3 - Intza KE</b> Larunbata. 14:00. Egiako pil., Donostian.
<b>IGERIKETA</b>
ESPAINIAKO TXAPELKETA
<b>Buruntzaldea IKTKo Iñaki Garcia infantil mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du.</b> Ostegunetik igandea. Terrasa, Katalunian.
<b>ALEBIN LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariek ligako 5. jardunaldia izango dute.</b> Larunbata. 17:30. Majori kirol., Ordizian.

KZL LIGA
<b>Buruntzaldea IKTKo benjamin mailako igerilariek ligako 4. jardunaldian parte hartuko dute.</b> Larunbata. 15:00. Majori kirol., Ordizian.
<b>ERRUGBIA</b>
18 URTEZ AZPIKOA
<b>Gaztedi RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT</b> Larunbata. 12:00. Lakua, Gasteiz, Araban.
16 URTEZ AZPIKOA
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - La Unica B RT</b> Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA
<b>Beltzak RTko eskolako gaztetxoek topaketa dute.</b> Igandea. 10:30. Mutrikun.
<b>XAKEA</b>
II. MAILA, IGOERA
<b>Taula A - Bergara A</b> Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
<b>Gros L - Taula B</b> Larunbata. 16:00. Donostian.


<b>JUDO</b>
LEGAZPIKO TORNEOA
<b>LOKE Judoko infantil mailako gaztetxoek Legazpi herriko III. nazioarteko txapelketa lehiatuko dute.</b> Larunbata. 14:30. Legazpin.
<b>GIMNASTIKA ERRITMIKOA</b>
AMATEUR TXAPELKETA
<b>LOKEko gimnastek Amateur mailako bigarren jardunaldian parte hartuko dute.</b> Larunbata. Egun osoa. Azpeitian.
<b>ARRAUNA</b>
SAN PEDROKO ESTROPADA
<b>Herritarrek kide dituzten Hondarribia eta Donostia Arraun Lagunak ontziek San Pedroko XV. Test Estropadan izango dira lehian.</b> Larunbata. 16:00. San Pedro, Pasaian.
<b>LASTERKETA</b>
UDABERRIKO LASTERKETA
<b>Herriko korrikalariak XVII. Udaberriko lasterketa lehiatuko dute.</b> Igandea. 10:00. Donostian.

**BIRZIKLATUZ,  
IRABAZTEN  
DUGU**



**JOLASTU,  
PARTE HARTU  
ETA IRABAZI**

sanmarkos Mankomunitatea



Gaikako  
bilketaren  
alde

**LUIS CAR**  
*autobusak*

HARRO FERRI BADATOR KORRIKA!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak